

ANTZINAKO EGIPTOKO ZIBILIZAZIOA

Egipto eta Nilo

Egiptoarren bizitza Nilo Ibaiaren mende zegoen, biztanleak ibai bazterretako lur sail estu eta emankorretan bizi baitziren. Egipto herrialde lehorra da; izan ere, Nilo gabe basamortua izango litzateke. Urtero iraila iristen zenean, Nilok gainezka egiten zuen uholdeak sortuz bazterretako lurretan. Urak jaisten zirenean, lokatz geruza bat gelditzen zen. Geruza hori hain emankorra zenez, nekazariak bi ed hiru uzte izaten zituzten urtean.

Komunikatzeko bide nagusia ere bazen Nilo ibaia, elkarrengandik ehunka kilometrora zeuden hiriak lotzen baitzituen.

Faraoiak

Erregea, faraoia, ez zen soilik Egiptoko gobernatzailea; jainkotzat ere hartzen zuten.

Faraoiaren botereak ez zeukan mugarik. Erresuma osoa zen berea. Berak erabakitzen zuen zer zegoen ondo eta zer gaizki, bere hitza lege zen.

Piramideak

Piramideak, Aintzinako Egiptoko erregeen hilobiak dira. Haietako handiena Keopsena da. Piramide honek ehun metro inguruko luzera du eta harri blokez osatuta dago. Harriak itsasontziz eramaten zituzten, eta eraikitzeko gunean bertan zatitzen zituzten bloketan, harri bakoitza zehatz-mehatz neurtzen eta ebakitzen zen, zegokion lekuan ondo geratzeko.



ANTZINAKO EGIPTOKO ZIBILIZAZIOA

Bizimodua

Egiptoar gehienak nekazariak ziren. Garia eta garagarra lantzen zituzten nagusiki.

Uzta biltzeko garaian, den-denek, gizonezkoek, emakumezkoek eta apaizek laguntzen zuten egin beharreko lanetan. Umeek animaliak zaintzen zituzten, behiak, ardiak, ahuntzak ...

Artisau egiptoarrak oso trebeak ziren. Egurrezko irudiak egiten zituzten; egurra lantzeko tresna gehienak oso gutxi aldatu dira orduz geroztik. Beste artisau batzuek buztinaz forma eta tamaina askotako ontziak egiten zituzten eskuz. Zapatarien lanbidea erraza zen, jendeak erabiltzen zuen oinetako bakarra larruz edo papiroz egindako sandalia baitzen. Dena dela, gehienetan, hanka-hutsik, oinutsik, ibli ohi ziren.

Egiptoarrek urre asko zeukaten. Urrezko bitxiak egiteaz gain, objektuak urreztatzen zituzten, hau da, gainetik urrezko geruza jartzen zuten. Faraoien estatuak eta sarkofagoak, aldiz, urre trinkoz eginda zeuden.

Eskultoreek brontzezko, egurrezko eta abarrezko irudiak egiten zituzten baina, batez ere, harrizkoak. Harginek harria lantzeko ez zuten burdinazko tresnarik, haine tresnak ez ziren oso aproposak; hala ere, harrizko estatua ikaragarri handiak egin zituzten abilezia handiz.



*Ezagutu... EGIPTOARRAK.
TTARTTALO (Egokitua)*

ANTZINAKO EGIPTOKO ZIBILIZAZIOA

ULERMEN GALDERAK

- 1- Zein zen Niloren garrantzia egiptoarren bizitzarako?
- 2- Zein funtzio betetzen zuten piramideek antzinako Egipton?
- 3- Zeintzuk ziren egiptoarren labore nagusiak?
- 4- Zer material erabiltzen zen egiptoarrek erabiltzen zituzten sandaliak egiteko?
- 5- Zer gauza egiten ziren errearekin antzinako Egipton?
- 6- Zergatik zen funtsezkoa Nilo Egiptoko nekazaritzarako?
- 7- Nola garraiatzen ziren harriak piramideak eraikitzeko?
- 8- Zergatik esaten da faraoia jainkotzat hartzen zela?
- 9- Zer adierazten digu egiptoarren eguneroko bizitzari buruzko testuak?
- 10- Zergatik ez zuten eskultore egiptoarrek harria lantzeko burdinazko tresnarik?